

ESKORIATZAKO UDALA ETA ARIZMENDI IKASTOLAREN ARTEKO HITZARMEN PROPOSAMENA

BILDURIK

ALDE BATETIK, Edorta Zubizarreta Alegria, Eskoriatzako alkatea, Eskoriatzako Udalaren izenean, haren ordezkari legez eta horretarako ahalmena duena.

ETA BESTETIK, Laurane Zubia Balanzategi, NAN 18593432W duena, Arizmendi ikastolako Administrari Nagusia, Arizmendi ikastolaren izenean, haren ordezkari legez eta horretarako ahalmena duena.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko eskumena eta gaitasuna onartzen diote elkarri eta, beraz, honako hau

AURREKARIAK

- 1.- Arizmendi Koop. elkarteak urtez urte, 1997tik hasita, honezkero tradizionala den "Ferixie" izeneko bertako produktuen eta artisautza azoka antolatu izan duela Eskoriatzan ekainaren lehen larunbatean.
- 2.- Herritarren artean gertakari kultural kuantitatibo eta kualitatibo garrantzitsua dela "Ferixie", publiko eta bisitari asko erakartzen ditu, eta gure udalerriko kulturaren erabat errota dago.
- 3.- Ondare kulturala, bere zentzurik zabalenean, mantentzeko eta sustatzeko modu bezala hartu izan da jai hau: ohiturak, tradizioak eta herri baten nortasuna definitzen duten ezaugarrien multzoa.
- 4.- Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorreko 22. artikulua diru laguntza zuzenak emateko kasu bezala udal aurrekontuetan diru laguntza izendun bezala jasotakoak aurreikusten dituela, hitzarmenetan eta horiek arautzen dituzten araudietan ezarritakoaren arabera: "Estatuko Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako izendun diru laguntzat jotzen dira gutxienez bere aurrekontu zuzkidura eta onuraduna Aurrekontu gastuen egoeran zehaztuta dituztenak. Diru laguntza hauen helburua berariaz zehaztuta egon beharko da dagokion lankidetzaren hitzarmenean edo diru laguntza emateko erabakian, eta edozein modutan ere, bat etorri beharko da dagokion aurrekontu kredituaren sailkapen funtzional eta ekonomikoarekin".

Kodea	W23/0023	Udala	Eskoriatza	
CUDO	000.0034.AAAAD3M1.7.XTTQ			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAAD3M17.XTTQ			
Dokumentu honen balioztasuna egiaztatzeko goiko Webgunean sar zaitez edo QR irudia irakurri ezazu				



ZUZENBIDEKO OINARRIAK

2023ko abenduaren 21ean, Eskoriatzako Udalaren 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen. Plan horretan ildo estrategikoak jasotzen dira, eta horietako lehena KULTUR DINAMIZAZIOA izenekoa da.

Lerro horren D ekintza Eskoriatzako Arizmendi Koop. elkartea diruz laguntzeko programa da. Helburua Arizmendi Koop. elkarteari urtero antolatzen duen Ferixiek sortutako gastuak finantzatzen laguntzea da.

Eskoriatzako Udaleko 2025eko aurrekontuetan 4.000 euroko dirulaguntza izenduna aurreikusten da, 0400.471.431.10.01 partidaren kargura, Arizmendi Koop. elkartearantzako.

Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorreko 22. artikuluan, besteak beste, jasotzen da dirulaguntza zuzentzat joko direla toki erakundeen aurrekontuetan nominatiboki aurreikusita daudenak, eta laguntzak ematerakoan horiek arautzen dituzten arauetan eta hitzarmenetan jasotakoaren arabera eman beharko direla.

BALDINTZAK

LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmen honen helburua 2025ko ekitaldirako udal aurrekontuan Arizmendi Koop. elkartearen alde dagoen diru laguntza izenduna antolatzea da. Diru laguntza hori 27. FERIXIEk sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko da.

BIGARRENA.- ESKORIATZAKO UDALAK EGIN BEHARREKO JARDUERAK

Eskoriatzako Udalak konpromisoa hartzen du 4.000 euroko diru laguntza emateko 0400.471.431.10.01 aurrekontu aplikazioaren kargura 27. FERIXIEk sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

Arizmendi koop. elkarteak ez du ordainduko “27. Ferixie” antolatzeko behar dituen udal material eta azpiegiturak erabiltzeagatik Udal Ordenantzetan ezarritako fidantza.

“27. Ferixie”-ren garapenean, antolaketan edo ospakizunean ondorio larriak edo galera ekonomiko handiak sor ditzakeen ezustekoren bat gertatuz gero, Udalak sentsibiltate bereziz ikertuko du gertatutakoa, eta ondorioak arintzeko egoki deritzon neurri materialak edo ekonomikoak ezarriko ditu.

HIRUGARRENA.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat etorri eta zazpigarren baldintzan zehaztutako justifikazio epea amaitu baino lehen egiten direnak.



Langileen (finko zein aldi baterakoenen) zuzeneko kostuak diruz lagungarriak izango dira bakarrik langile horiek diruz lagundutako jardueran eginkizun zuzen eta giltzarria badute, eta betiere, kobratutako kopuru osoa ez bada 6.000 euro baino handiagoa eta kopuru hori ez bada jardueraren gastu osoaren % 40 baino handiagoa. Ez dira zuzeneko kostu diruz lagungarriak, eta zeharkako kostutzat joko dira, laguntza emateko soilik diren erakundeko langileak (adibidez, zuzendari nagusia, kontularia, kontratazio arloan laguntza ematen duena, giza baliabideetakoak, informazio teknologietakoak, administrari laguntzailea eta abar).

Diruz lagungarri izan daitezkeen gastu kontzeptuei dagokienez, gastu tipologia zehazteko ondorengo mugak ezartzen dira:

- Bazkari, afari edo ostalaritza zerbitzuko gastuak, diruz lagundutako ekintzan parte hartzen dituztenekin sortutakoak izan ezik, eta hala denean, egindako gastuaren eta lortu nahi den helburuaren arteko proportzionaltasuna gorde beharra dago.
- Ez dira onartuko antolatzaileen kilometraje, ibilgailuentzako erregai, telefono zerbitzu partikular edo antzeko gasturik.
- Ez dira onartuko gastu oharrak eta beste dokumentu batzuk, legezko baliodun faktura edo egiaztagiritzat jotzeko eskatzen diren arauzko baldintzak betetzen ez badituzte; 7. baldintzan jasotako salbuespena izan ezik.

LAUGARRENA.- BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN PILATZEKO AUKERA ETA FINANTZAZIO MUGAK

Emandako diru laguntza bateragarria izango da helburu bererako Udalak edota beste erakunde publiko edo pribatuek emandako diru laguntzekin. Hala ere, inolaz ere ez da gain-finantzaziorik onartu. Horrelakorik gertatuz gero, emandako diru laguntza murriztu egingo da diruz lagundutako ekintzaren kostu totalaren mugara.

BOSGARRENA: ARIZMENDI KOOP. ELKARTEAEN BETEBEHARRAK

- Diru laguntza emateko arrazoia den jarduera egitea.
- Baldintzak bete direla eta jarduera egin dela justifikatzea.
- Jardueraren garapenari buruzko informazioa ematea jarraipena egin ahal izateko eta Udalak eman dezakeen laguntzarako.
- Diru laguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera aldatuz gero, horren berri ematea Udalari.
- Udalak egin beharreko egiaztatze jardunak onartzea, bai eta eskuduntza izendaturik duten kontrol organoek -estatukoak nahiz erkidegokoek- egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontrolerako beste edozein ere, eta jardun horiek egiterakoan errekeritzen zaien informazio guztia ematea.



- Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko beste diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo bitarteko batzuk lortu baditu, Udalari jakinaraztea. Laguntza horien berri dirulaguntzaren bigarren zatia kobratzeko aurkeztu den kitapenean eman beharko da.

- Zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean izatea hitzarmena sinatu baino lehen eta hitzarmenaren indarraldiak dirauen bitartean.

Horretarako, hitzarmen hau sinatzearekin, Gipuzkoako Foru Aldundian, Gizarte Segurantzaren edo eskuduntzak dituen beste erakunde edo administrazio publikoren batean dagozkion ziurtagiriak telematikoki lortzeko baimena ematen zaio, berariaz, Eskoriatzako Udalari.

Behar beste baimen lortzea diruz lagundu beharreko jarduera garatzeko, eta baimenon xedapenak betetzea.

Jarduera eta ikuskizun publikoen antolaketari buruz indarrean dagoen legedia betetzea, eta baita dagokion jarduera eremuari aplikatu dakiokeen estatuko edo erkidegoko gainerako legedia ere. Arizmendi Koop. elkarteak joko da diruz lagundutako jardueraren antolatzaile bakartzat, eta beraz, bera izango da aipatutako jarduera normaltasunez edo normaltasunetik kanpo egiteagatik sor daitezkeen ondare erreklamazioari aurre egiteko erantzule zibil bakarra. Edozein modutan ere, egon daitezkeen erreklamazioetatik salbuetsita geldituko da Udala.

EUSKERAREN ARLOAN

Ferixien antolatzaile den Arizmendi Koop. elkarteak berezkoa du euskararen erabilera eta normalizazioan urratsak ematea, beraz, Ferixien antolaketa lanetan nahiz egunean bertan euskararen erabilera bermatuko du. Adibide gisa, erakusgai jarritako postuetan idatzizko elementuak euskaraz egoteko ardura bere gain hartzen du.

BERDINTASUNAREN ARLOAN

Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabe Bizitzeko Legearen testu bateginaren 23.3.c artikuluan ezarritakoaren arabera, dirulaguntza jasotzen duten erakundeek hizkera ez-sexista erabili beharko dute aurkeztu dituzten memoria, proiektu eta gainerako testuetan. Era berean, genero-estereotipoak errepikatzea saihestu beharko da, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna aktiboki sustatu, egiten diren irudi, komunikazio, argitalpen, programa, ikastaro eta abarretan.

KOMUNIKAZIO ARLOAN

Jarduerak sorrarazitako dokumentazio eta inprimatutako propaganda guztietan Udalak diruz lagundutako ekintza dela adierazi beharko du Arizmendi Koop. elkarteak.

Jarduerarekin, proiektuarekin edo programarekin lotutako iragarki eta komunikazioetan ez da erabiliko ez hizkera ez irudi sexistarik.



SEIGARRENA.- DIRU LAGUNTZA ORDAINZEKO EPEAK

Diru laguntza modu honetara ordainduko da:

% 60a hitzarmen hau sinatu ondoren.

Gainerako % 40a, organo eskudunak diru laguntzaren kitapena onartutakoan ordainduko da, hau da, diruz lagundutako jarduerak erabat eta zuzen justifikatutakoan 7. baldintzan eskatutako dokumentazioa aurkeztuta.

ZAZPIGARRENA.- DIRU LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

ARIZMENDI KOOP. ELKARTEAK ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko ditu telematikoki Udal Erregistro Orokorrean diru laguntza justifikatzeko 2025ko azaroaren 1a baino lehen:

- Dirulaguntza eskaera orria.
- Jarduera egin zela eta helburuen betetze maila egiaztatze txostena.
- Dokumentazio grafikoa (kartelak, liburuxkak, libretoak, banatutako idatzizko materiala, prentsa oharrak eta abar).
- Diruz lagundutako jardueran izandako sarreren eta gastuen balantzea, hasieran aurkeztutako aurrekontuari egokitu dela egiaztatze txostena. Hasierako aurrekontuarekiko izandako desbideraketa taula aurkeztu beharko da, eta desbideraketarik izanez gero, horiek justifikatzeko txostena ere egin beharko da.
- Idazkariak presidentearen oniritziarekin egindako ziurtagiria diruz lagundutako jarduerarako jasotako diru laguntzei eta gainerako sarrerei buruz, horiek balantzean jasota edo jaso gabe egotea kontuan hartu gabe.
- Jardueraren gastuen zerrenda sailkatua honako hauekin: hartzekodunaren identifikazioa, faktura zenbakia edo froga-balio baliokidea duen dokumentua, zenbatekoa, fakturaren data eta ordainketa eguna.
- Jardueragatik egindako gastuen fakturak behar bezala beteta. Diruz lagundutako jarduera osoarengatik aurkeztu beharko dira fakturak, nahiz eta Udalak emandako diru laguntza hasierako aurrekontua baino txikiagoa izan.

a) Fakturak, gutxienez, honako hauek izan beharko dituzte:

Faktura egiten duen enpresa edo pertsona fisikoaren datu guztiak: izena, helbidea, IFK edo NAN.

Elkarteak ordaintzeko jaulkitako fakturak izan beharko dira, eta bertan jaso beharko dira bere izena, helbidea eta IFK, kontzeptua, unitateak, koste totala unitateko, koste totala eta BEZ banakatua edo BEZ barne den, faktura zenbakia, jaulkipen data eta ordainketa



modua. BEZa salbuetsita duten operazioetan hori egiteko arauaren erreferentzia jaso beharko da. Ez da onartuko fakturarik pertsona fisikoen izenean.

- Gastuak justifikatzerakoan aurkeztutako dokumentuetan izandako faltsukeriagatik, zehaztasun ezagatik edo akatsengatik egon daitezkeen gorabeherak zigortu egingo dira diru laguntza kitatzerakoan.
- Salbuespen gisa, lege ezarritako baldintzak (BEZ, autonomoetan alta, JEZ eta abar) betetzen dituzten fakturak egiteko moduan ez dauden pertsonen emandako zerbitzuetan edo egindako lanetan, ordainketa jasotzen duenaren jasotze-agiria onartuko da fakturaren ordezkio bezala, betiere, gutxienez ondoren esango diren datuak baldin baditu, kobratutako kopurua ez baldin bada 125 € pertsonako baino handiagoa eta fakturatzat hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituzten gastu ohar edo dokumentu guztien batuketa ez bada jardueraren gastu guztiaren % 25a baino handiagoa.

a) Ordainketa data, Ferixie egunarekin bat etorri beharko dena.

b) Ordaindutako zenbatekoa.

c) Ordainketa jasotzen duenaren (izena, 2 abizen eta NAN) eta ordainketa agintzen duenaren identifikazioa.

c) Zein kontzeptutan agintzen den ordainketa.

Fakturen edo ordainagirien data jardueraren exekuzio aldiaren barruan egon beharko da. Exekuzio aldiaren aurreko data duten fakturak bakarrik onartuko dira programaren jarduerak garatzeko aurrez ordaindu behar izanez gero.

- Langileen gastuak justifikatzeko:

Jarduerarekin lotutako langile guztien zerrenda, erakundeko ordezkariak ziurtatua; bertan adierazi beharko da bakoitzak egindako lan edo funtzioak, horretan emandako denbora eta kostea.

Kontratuak, nominak, Gizarte Segurantzari kotizatu izanaren buletinak (*TC/1 eta TC/2 dokumentuak*) edo erregelamenduz horiek ordezkatzeko dituztenak eta PFEZ kontzeptuagatik egindako atxikipenak Ogasunean sartu izanaren dokumentuak.



ZORTZIGARRENA.- UDAL LOKALAK PREKARIOAN LAGATZEA.

Eskoriatzako Udalak Olaeta 8n dagoen lokala prekarioan lagatzen dio Arizmendi Koop. elkarteari Ferixien erabiltzen den materiala gordetzeko, hau da, txorimaloen euskarriak, taloak egiteko materiala eta plantxak, karpak, sonbrillak...

Lokalen lagapena honako baldintza hauekin egiten da:

- Lokalak prekarioan lagatzen dira, hau da, inolako kontraprestaziorik gabe.
- Arizmendi Koop. elkarteari 2025eko urtarrilaren 1etik 2025ko abenduaren 31ra arte lagatzen zaizkio lokalak eta luzatuko da hurrengo urteko hitzarmena sinatu arte.
- Arizmendi Koop. elkartearen materiala gordetzeko eta materialak prestatzeko erabiliko du biltegia eta ez beste ezertarako. Behar bezala zaintzeko betebeharra du, egindako kalteen erantzule izango da eta hasieran zegoenetan itzuli beharko du kontratua bukatzen denean. Ezin izango du obrarik egin Udalaren baimenik gabe, ezta hirugarren bati lokala laga ere.
- Egiten den erabilera-lagapena ez da baztertzailerik, hau da, Arizmendi Koop. elkarteak lokala beste erabiltzaile batzuekin partekatu ahal izango du, aldez aurretik Arizmendi koop. elkarteak eta Udalak adostu badute.
- Eskoriatzako Udalaren kontura izango dira instalazioen mantentze-lanak eta argindarra.
- Alde biek berariaz aitortzen diote elkarri Eskoriatzako udalak ez duela bere gain hartzen ez zuzenean ez modu subsidiarioan edozein motako ekintzak egiteagatik edo ez egiteagatik lokalean gerta daitezkeen kalte materialik, pertsonalik edo moralik.
- Prekarioan lagatze hori iraungitzat joko da Udalak, aurrez eta hilabeteko aurrerapenarekin Arizmendi koop. elkarteari horrela eskatuta, lokalak erreklamaturakoan edo Arizmendik lokalak itzulitakoan. Era berean, kontratu hau automatikoki iraungitzeko arrazoia izango da ondasun hori hemen aipatu ez den beste erabilera baterako erabiltzea.
- Udalak edo bere ordezkariak baimena izango dute lokalera sartzeko zaintza lanak eta konponketa eta mantentze-lanak egin ahal izateko



BEDERATZIGARRENA. JARRAIPEN BATZORDEA

Bi aldeek beharrezkotzat jotzen dute hitzarmenaren jarraipen batzordea eratzea. Aurreikusitakoa eta hartutako konpromisoak betetzen direla zainduko du batzordeak eta, orokorrean, etorkizunean gertatu litezkeen auziaz arduratuko da.

Batzorde horretako kide izango dira:

- Udalaren aldetik: Kultura teknikaria eta kultura zinegotzia edo berak izendatutako pertsona.
- Arizmendi koop. elkartearen aldetik: Haur Hezkuntzako zuzendaria, Jose Aranako arduraduna eta jarduerako kudeatzailea.

HAMARGARRENA.- HITZARMENA SUNTSITZEA

Hitzarmen hau alde biek hala adosten dutenean suntsituko da. Era berean, alderen batek baldintzetakoren bat betetzen ez duenean ere suntsitu egingo da, betiere, hilabete aurretik alde horri kontratua suntsituko dela era fede-emailean jakinarazi eta gero.

HAMAIKAGARRENA.- IZAERA

Hitzarmen honen aplikaziotik, interpretaziotik, aldaketatik, ondorioetatik eta ebazpenetik auziak edo eztabaidak sortuko balira, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak dioenaren arabera ebatziko dira.

Eta, ados daudela adierazteko, alde biek hitzarmen hau sinatzen dute ondorio bakarrerako, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

ESKORIATZAKO UDALA

ARIZMENDI KOOP. ELKARTEA